

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko martxoaren 8a. IX. urtea. 2.375. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

**Enrike Arostegi**

Tolosako Musika Bandaren zuzendaria

## «Banda profesionalak kenduta, Tolosakoa Euskal Herriko onenetarikoa da»

Enrike Arostegik Luis Mari Gartzia ordezkatu du musika bandaren zuzendari karguan **o3**



IGL



ITZELARRAZU

→ **Biketrial txapelketa Tolosan.** Igande honetan, Gipuzkoako Trialsin txapelketako proba jokatuko dute Tolosan, skateparkaren ondoan. Bertan parte hartuko dute sortu berria den Tolosa Biketrial taldeko neska-mutil gazteek; taldeko kidea den Irene Caminos Euskadiko txapelduna izan da aurten. **o2**

## Aurrekontura iristeko «zailtasunak» izan arren, etzi jokatuko da Insalus Saria

Lizartzako Otsabio kirol elkarteko kideek babesle guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie; 110 txirrindulari inguru espero dituzte **o4**

### Hazizurriari aurre egiteko txertoaren alde egin dute osasun zentroek

Leitza eta Ibarra, besteak beste, hazizurria kasuak artatu behar izan dituzte, azken urteetan ez bezala, eta gehienbat 15 urtetik gorako herritarrengan **o5**

### Ioseba eta Imanol Rojo eskiatzaileak emaitza onak lortzen ari dira

Espainiako txapelketako iraupen eskiko sprint eta distantzia luzean bigarren eta laugarren postuak lortu berri dituzte anaia tolosarrek **o6**

### Manu Azkarate tolosarra atxilotuta izan dute hainbat orduz

Frantziako Poliziak, Euroagindu bat tarteko, Lapurdiko Ziburu herrian atzeman ondoren, Paueko Auzitegirera eraman eta aske utzi dute **o2**

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



Pello Etxabe kirol zinegotzia, Irene Caminos, Unai Iraola eta Jose Mari Caminos, agerraldian. I. URKIZU

## Trialsin txapelketako saioa lehen aldiz Tolosan jokatuko dute, igande honetan

Duela urte bete sortu zen gaztetxoan Tolosa Biketrial taldeak, parte hartuko du Usabalgo proban

### Itzea Urkizu

Gipuzkoako bederatzigarren Trialsin txapelketako laugarren saioa Tolosan jokatuko dute igande honetan, lehenengoz, Usabal kiroldegiko skate park berriaren aldamenean prestatu duten zirkuituan.

Pasa den urtarrilaren 29an Hernanin hasi zen Trialsin txapelketa, eta geroztik, Pasai Donibanen eta Aretxabaletan ere izan dira saioak. Tolosakoaren ondoren, hilaren 25ean Oñatiko Arantzazu santutegiaren ondoan antolatuko duten biketrial txapelketa izango da ligako azkena.

Igandean, 10:30ean hasiko da proba, eta 13:30era bitarte ariko dira, kirolari profesionalak nahiz afizionatuak. Usabalgo skate par-

karen ondoan prestatu dute probarako zirkuitua, eta Tolosa Biketrial taldeko entrenatzailea den Unai Iraolak azaldu duenez, Tolosako Udalak baimena eman die, gerora ere zirkuitua kiroldegian gera dadin: «Modu honetara, kirol hau gustuko duen edonork entrenatzeko aukera izango du bertan». Guztira, enbor eta arranzapaz osatutako sei eremu artifizial eraiki dituzte, jauziak egiteko altuera egokiarekin.

Antolatzaileek herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete, eta horretarako, 10:00etan izen-emaitea irekiko dute. Bost euro ordaindu beharko dituzte, eta arduradunek azaldu dutenez, Usabalgo biketrialako zirkuitua behar bezala egokitzera bideratuko dute bildutako dirua. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskola Kirola egitasmoaren bidez, bertaraten diren neska-mutilek zirkuituan ibiltzeko aukera izango dute izena emanda; Gipuzkoako Txirridularien Federazioak sei bizikleta eta kasko utzi dizkiete antolatzaileei horretarako.

Tolosako biketrial probak irauten duen bitartean, Tolosa Biketrial taldeko postua jarriko dute arduradunek, kamisetak saltzeko, eta saioaren amaieran, Tolosaldeko bizikleta denden eskutik, kirol materiala zozketatuko dute.

### Etorkizuna duen talde berria

Mendiko bizikletarekin oztopot betetako ibilbide bat burutzean datzan kirol honetan, hasiberriak dira Tolosa Biketrial taldeko haur eta gaztetxoak. Horrek ez die, ordea, emaitza onak lortzea oztopatu.

Horren erakusle da Irene Caminos tolosarra. 13 urterekin Euskadiko txapeliduna izatea lortu du kirol honetan. Unai Iraola entrenatzaileak azaldu duenez, gainera, taldea ia zuzen hasi da aurtan, eta aurrera jarraitzeko gogoz lanean ari dira.

9 eta 13 urte bitarteko lauzpabost gaztetxok osatzen dute taldea, eta orain dela gutxi 5 urteko kide berri bat hasi da ikasten. Jose Mari Caminosek azaldu duenez, eurak dira gogo eta ilusio gehien jartzen dutenak, eta hain zuzen ere, neska-mutilek sortu dute Tolosa Biketrial taldeko lotogotipoa. Babarruna bat irudikatu dute bizikleta gainean, Tolosaren bereizgarri moduan, eta kamisetak sortu dituzte irudiarekin.

Aurrera begirako asmo zehatzik ez duten arren, orain daukatenarekin gustura daudela azaldu du Iraola entrenatzaileak; Caminos gazteak, gainera, Espainia mailako proba batean parte hartuko du: «Asko lortu dugu urte batean, eta orain urte bete ez genuen pentsatuko horrela egongo ginenik».

## Ordu batzuz atxilotuta izan dute Manu Azkarate

Paueko Auzitegira eraman eta aske utzi dute tolosarra; epailearen aurrera joan beharko du astelehenean

### I. Urkizu

Frantziako Poliziak Manu Azkarate tolosarra atxilotu zuen atzo, Ziburun (Lapurdi), Euroagindua bat tarteko, ETArekin zerikusia duelakoan. Baionako auzi poliziak atzeman zuen 10:30ak aldera, eta armarik ez zuela jaso zuen Europa Press berri agentziak. Arratsaldean, berriz, Paueko Auzitegira eraman ondoren, aske utzi zuten 18:00ak aldera. Datorren astelehenean, epailearen aurrera joan beharko du berriz ere.

Atxiloteta gaitzesteko iluntzeko 20:00etarako deituta zegoen elkarretaratzea mantendu egin zuten. Tolosako Aralarrek, berriz, «salatu eta gaitzetsi» egin du atxiloteta: «Euskal Herriak behar eta nahi duen bake eta normalizaziari inolako ekarpenik ez dio egi-

ten». Horrela beraz, Manu Azkarateren kasua ikertzeko eta aztertzeko eskatu du Tolosako Aralarrek.

Azkarate Ziburun bizi da orain dela zenbait hilabetez geroztik. 1986an 51 urteko kondena egotzi zioten, hainbat delitu leporatuta, eta urte hartan bertan kartzelaratu zuten, urtarrilaren 16an. 1992ko abenduan, berriz, baldintzapeko askatasuna lortu zuen, hesteetako gaixotasun kroniko bat zuela eta.

2004an askatasuna baliogabetu zioten, eta berriro espetxeratu zuten, Martuteneko kartzelara lagun bat bisitatzea joan zenean. Urte horretako ekainean aske utzi zuten. Espainiako Gobernuko Barne sailak azaldu du, Azkaratek bi atentatutan parte hartu zuela Bizkaian. Batetik, Portugalen Alberto Aznar Felix teniente koronelaren aurkako erasoan parte hartu izana leporatzen diote, eta bestetik, Galdakaon Juan Enriquez Criado, Francisco Javier Fernandez de Lajusticia eta Manuel Asensio Pereda hil ziren erasoan parte hartzea.

## Nazioarteko ahozkotatasuna, Ahoz Aho jaialdiaren eskutik

Larunbat honetan hasiko dira Tolosan eskainiko dituzten ikuskizunen egitaraua, Amartz auzoan

### I. Urkizu

Nazioarteko antzerki munduko hainbat ikuskizun ikusi ahal izango dira datozen egunotan, Tolosan, Ahoz Aho jaialdiaren egitarauaren barruan.

Intujai Teatro taldeak antolatuta, Tolosaz gain, Ordizian ere izango dira ikuskizunak; izan ere, aurtan herri goierritarra izango da jaialdiaren egoitza nagusia.

Antolatzaileen helbururik behinena, ahozko tradizioari eustea, eta hemendik kanpoko ahozkotatasun motak ezagutzea da. Kondaira eta ipuin gehienak belaunaldiz belaunaldi ahoz aho transmititu izan direla diote, eta «bestelako iturrietatik lortutakoa banatzeko garaia» iritsi dela diote.

Horrela beraz, etzi, martxoaren 10ean, Amartzetan izango da lehen ikuskizuna. 17:00etan hasita, Alabazan talde euskalduna ariko da, haurrei eskainitako emanaldian.

Datorren martxoaren 15ean, berriz, hainbat emanaldi izango dira. 16:00etan Laura Dippolito argentinarra eta Jhon Ardilla kolonbiarra ariko dira, EPAn. 17:30ean, berriz, haurrentzako emanaldia izango da euskaraz, Amartzetan, Apika taldearekin. 20:00etan, Enekora euskaldunak eta Fallou Digne senegaldarrak elkarlanean eskainiko dute saioa Otsabin, euskaraz, gazteleaz, eta molof eta malinke hizkuntzetan. Gauean, berriz, 20:30ean, Irantzu Mantxo euskalduna Jhon Ardilla kolonbiarrekin ariko da Orbela tabernan, euskaraz nahiz gazteleaz.

Martxoaren 16an, San Esteban auzoan, 18:00etan, Badut talde euskalduna eta Sasa Guadalupe argentinarra ariko dira. 20:30ean, berriz, Ahoz Ahoren gala nagusia izango da Leidor aretoan.





I.G.L.

## Enrike Arostegi ◉ Tolosako Musika Bandako zuzendaria

30 urte daramatza Enrike Arostegik Tolosako Musika Bandan, horietatik 16 zuzendariorde gisa. Luis Mari Gartzia Artetxe banda zuzendari ohiak erretiroa hartzerakoan Arostegik jaso du kargua.

# «Horrelako musika banda batean gakoa oreka bilatzean dago»

**Imanol Garcia Landa**

Enrike Arostegik (Tolosa, 1962) bere lehenengo kontzertua zuzenduko du, larunbatean, Tolosako musika bandaren zuzendari gisa. Dagoeneko, bere kargu berria estreinatu du inauterietan, helduen danborradan eta dianan banda gidatu baitzuen. Larunbateko kontzertua Uzturre asistentzia zentroan izango da, 17:00etan.

### Zuzendari izan aurretik, zer jotzen zenuen musika bandan?

Saxofoia jotzen nuen. Ni berez saxofoi irakaslea naiz Tolosako musika eskolan. Goi mailako titulua dut instrumentuan, eta gero ikastaro pila bat egin ditut, bai instrumentuekin eta baita zuzendari-tzakoak.

### Saxofoiaz aparte, beste instrumenturik jotzen al duzu?

Gehienbat pianoa. Saxofoiaren antzekoak direnak ere jotzen ditut, eta semeak klarinetea jotzen duenez, instrumentu horrekin ere aritzen naiz.

### Musika bandako zuzendari izendatu zaituzte. Zenbat denborarako?

Udalean, irtenbidea etxean bertan zegoela pentsatuz, barne promozio bat egitea pentsatu zuten. Raxoiaren gobernuak atera duen legea dela eta, urtebetez baino gehiago ezin izan dute kontratua egin, beraz, urte bukaera arteko kontratua daukat. Lege horrek indarrean jarraitzen badu, kontratua beste urtebetez egingo dinate.

### Zuzendari lana musika eskolako irakasle bezala duzunarekin partekatzen duzu.

Bai, zuzendari lanari lanaldiaren %25a eskaini behar diot, bere garaian Luis Mari aurreko zuzendariak egiten zuen bezala.

### Irakasle bezala zenbat urte daramatzazu?

22 urte pasatxo. Batez ere Tolosako musika eskolan, baina Donostiako kontserbatorioan eta beste hainbat musika eskoletan ere izan naiz irakasle.

### Bandako zuzendari bezala aritu izan ahalzara aurretik?

Zuzendariorde bezala gutxienez banuen konpromisoa urtean behin kontzertu bat zuzentzeko. Ohikoena musika eskolak antolatzen duen musika astearen barruan izan da, bertako irakaslea naizenez. Bestalde, Luis Marik ezin izan duenean, nik egin dut ordezkapena.

### Inauterietan izan duzu estreinaldia zuzendari karguan. Nola joan zen?

Inauterien aurretik egiten dugun kontzertuan omenaldia egin genion Luis Mariri, eta orduan pasa zidan zuzendari makila. Ofizialki, lehen ekitaldiak zuzendari bezala helduen danborrada eta diana izan ziren. Ondo joan zen; ez zen izan gauza berri bat: aurretik ere noizbait zuzendu izan nuen banda ekitaldi horietako batean.

### Larunbateko kontzertua prestatzen ariko zara, ezta?

Bai, lehen San Jose inguruan egiten genuen kontzertua da. Gerontologiko berria ez zegoenean, Euskal Herria plazako zentroan egiten genuen. Aurten deitu ziguten Uzturren egiteko, eta hara jo-

ango gara. Gutxi gorabehera hilean kontzertu bat ematen dugu, eta hau martxoan egin ohi duguna izan da. Adinekoei zuzendutako egitaraua eskainiko dugu: pasodoble bat, *Amapola* abestia, Tom Jones-en abestiak... Beraiei ezagunak zaizkien doinuak izango dira.

### Prestaketa lan guztia berria izango da zuretzat.

Lehen, urtean behin edo zuzentzen nuenean kontzertua, denbora gehiago izaten nuen prestatzeko. Orain, hileroko kontua izango da, egitaraua pentsatzea, zerbait ezberdina bilatzea. Azkenean, erreperitorioa pixka bat aldatzea ere komeni da, bandako musikariak ere gustura aritzeko lanean. Beste banda batzuetako zuzendariekin harremanetan ere jarri behar da, entseguak prestatu, partiturak ere bai...

### Pentsatzen zenuen noizbait zuzendari izango zirela?

Zuzendariorde izanda, beti pentsatzen duzu aukeraren bat izango duzula. Luis Marik erretiroa hartu behar zuela jakitean, eta udalak eta batzordeak pentsatu zutenean hobereana ni jartzea zela, pixkana joan naiz mentalizatzen. Lana da, erantzukizuna du, eta ilusioarekin nago. Bandakoek beraiek nahi zuten ni izatea, animatu egin naute, badakite nire lan egiteko modua, eta nire aldeko apustua egiteak lana ilusioz egitera animatzen zaitu. Nik sumatzen dut jendea gustura dagoela, eta prest dagoela gauza berriak egiteko.

### Luis Mari Gartzia egindako lanari buruz zer esango zenuke?

Lan asko egin du. Berarekin banda asko gaztetu da, musika eskolako ikasleak bandan sartuz. Gauza asko egin ditu ondo. Erreperitorioa ere aldatu egin du, doinu garaikideagoak sartuz.

### 50 musikari inguruko taldea eramateak ere bere lana eskatuko du.

Nik hor abantaila dut, urte asko pasatu ditudalako bandan, eta jendea ezagutzen dut. Musika eskolako ikasleen jarraipena ere egin izan dut, irakasle izanik. Gutxi gorabehera badakit bakoitzak zenbateraino eman dezakeen, zenbat eskatu bakoitzari, nola motibatu... Kontuan izan behar da hau herriko banda bat dela, ez dela profesionala. Beraz, jendea ezagutzea abantaila da. Horrelako banda batean gakoa oreka bilatzean dago: bandako batzuk musikatik bizi dira, irakasle moduan adibidez, eta beste batzuk zortzi orduz lantergi batean lan egin ondoren etortzen dira. Euskal Herri mailan, banda profesionalak kenduta, Tolosakoa onenarikoa da.

### Zein da zuzendari bezala duzun erroka?

Alde batetik, musikari berriak sartzen joate. Hurrengo denboraldirako horretan saiatuko gara. Nire aldetik, helburua da Luis Marik eman duen maila mantentzea eta ahal bada, hobetzea.

## Tolosako udal bulegoak itxita izango dira gaur eta bihar

**Erredakzioa**

Tolosako Udalak onartu berria duen lan-egutegia aplikatzearen ondorioz, udal gobernuak jakinarazi du gaur eta bihar, hau da hilaren 8a (Emakumearen Nazioarteko Eguna) eta hilaren 9a, udal bulegoak itxita egongo direla. Egun hauen partez, bere garaian jakinaraziko diren beste horrenbeste egunetan zabalduko dira udal bulegoak.

Egutegi aldaketa horrek ez die nahitaz eragiten beste hainbat zerbitzuei, esaterako, udal eskualtegiari, musika eskolari eta kultur tailerrei.

## Langabetu eta langileentzat lau ikastaro doan egiteko aukera

**Erredakzioa**

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakinarazi duenez, martxoaren 19an lau ikastaro jarriko dituzte martxan. *Irrati-telebista seinaleen jasotze eta banatze instalazioen muntaketa* (60 ordu), *Klimatizazio eta aireztapen instalazioen muntaketa* (80 ordu), *Acces: oinarrikoa* (50 ordu) eta *Kalitatearen kudeaketa* (20 ordu) dira ikastaroak. Langile eta langabetuentzat zuzenduta daude eta doanekoak dira.


Oraindik izena emateko aukera dago ikastaro horietan. Horretarako instituturara bertara joan behar da edo 943 65 11 47 zenbakira deitu.

## 'Declaración de guerra' filma, gaur, zine forumeko saioan

**Erredakzioa**

Zine forumaren saioarekin ekingo diote, gaur, Tolosan, asteburuko zinema egitarauari. *Declaración de guerra* emango dute, 19:15ean eta 21:45ean. Larunbatean, 17:00etan, *Malutatxo* hurrentzako filma; 19:30ean eta 22:30ean, *J. Edgar*. Igandean, 17:00etan, *Malutatxo*; 19:30ean, *Katmandu*; eta 22:30ean, *J. Edgar*. Astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean, *Katmandu*.





Pasa den urteko irabazlea Antonio Angulo izan zen. Irudian, helmugara iristen. REBEKA CALVO

## Afizionatu mailakoan Insalus txirrindulari proba hartuko du Lizartzak, etzi

110 txirrindulari inguru espero dituzte antolatzaileek; 110 kilometroko proba burutu beharko dute

### Iñigo Terradillos Lizartza

Txirrindularien topaleku izango da etzi Lizartza, afizionatu mailako Insalus Saria jokatuko baita bertan. Lizartzako Otsabio kirol elkarteak antolatzen duen probak 24 urte betetzen ditu aurten, eta aurreko urteetako ezaugarriak mantenduko ditu. Probaren maila eta garrantziaren adierazle da Lehendakari Txapelketarako puntuagarria dela.

Otsabio kirol elkarteak Xabier Balerdik adierazi duenez, 110 txirrindulari inguru espero dituzte.

«Aurrez izena emateko aukera badago elkartean bertan, baina parte hartzaile gehienek egunean bertan egin ohi dute, beraz, azken unera arte ez dago jakiterik», azaldu du. Hauek guztiak 15:30ean abiatuko dira Lizartzatik eta 110 kilometro inguru egin ostean, 18:00ak aldera iritsiko dira helmugara, hau da, Lizartzara. Balerdik dioenaren arabera, proba «erakargarria» dela nabarmentzen dute txirrindulariek; «kilometro kopuruari dagokionez, ez da proba luzea, baina, hori bai, baditu igoera batzuk nahiko gogorrak direnak; ezaugarri guztiak kontuan hartuta, oro har, parte hartzaileek proba gogoko dutela esaten digute», esan du Otsabio elkarteak kideak.

Bestalde, ibilbidea iazkoaren parekoa izango da. Beraz, Lizartzatik irtengo dira txirrindula-

riak, eta Amarotz, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo eta Ordiziara joango dira. Handik, itzuliko bidea hartuko dute, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Alegiatik igaroz. Altzora bi aldiz igoko dira, eta tartean Lizartzatik eta Amaroztik pasa beharko dute. Ondoren, berriro ere Lizartzatik eta Amaroztik pasa, eta Leaburura igoko dira. Handik Tolosa, Alegia eta Altzora joango dira, azkenik, Lizartzako helmugara iristeko.

### Aurten ere, «kolokan»

Balerdik dioenez, «beste urteetan bezala, aurten ere ez da erraza izan txirrindulari proba antolatzeari». Aurrekontura iristeko «zailtasunak» izan dituzte antolatzaileek, baina, azkenean, eta «batez ere babesle berrien laguntzari esker» proba egin ahal izango da. «Babesle guztiak eskertu behar ditugu, euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako ia 25 urtetan proba mantentzea; aurten, gainera, beste urteetan izan ez dugun Lizartzako Udalen babesa izan dugu, eta urte askotan jarraitzea gustatuko litzaziguke».

Bestalde, datorren urteko proba dute dagoeneko buruan antolatzaileek. Izan ere, 25 urte beteko dituen hurrengo urtean Lizartzako txirrindulari probak, eta urteurren borobil hori nolobait ospatze aldera, «zerbait berezia» egin asmo dute.

## Lodosako ikastolaren aldeko elkartasun kanpaina abiarazi dute

Ibarrako Bai Euskal Herriarik, Uzturpe ikastolak eta udalak bat egin dute Nafarroako ikastolari laguntzeko

### I. Terradillos Ibarra

Lodosako ikastola egoera larrian aurkitzen da, batez ere, «Nafarroako Gobernuaren eskutik ez baitu diru laguntzarik jasotzen». Bada, Ikastolen elkartetik elkartasun deia zabaldu dute, eta Ibarrran, Bai Euskal Herriarik, Uzturpe ikastolak eta Ibarako Udalak bat egin dute Lodosako ikastolari laguntzeko helburuarekin.

Helburu hori betetzeko, ekimen sorta jarri dute abian. Bate-

rik, Lodosako ikastolari bere laguntza zuzenenan eman nahi dionarentzat Euskadiko Kutzako 3035 0153 46 1531026051 kontu zenbakia jarri dute. Horrez gain, Ibarrrako hainbat dendatan jarririko dituzten elkartasun kutxetan ere herritarren ekarpena jasoko dute.

Azkenik, hilaren 24rako Ibarrrako plazan talo jatea antolatuko dute, «jolas eta festa giroan Lodosako haurrei, gurasoei eta irakasleei gure animoak eta laguntza ekonomikoa bidaltzeko». Festa honetan, Lodosako ikastolako zuzendaria den Iñigo Telleria ibartarra izango da, eta han bizi duten egocoraren berri emango du.

Ekimenaren bultzatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte ekitaldi desberdinetan parte hartzera.

## Ione Gorostazuren 'Des egiten' poema bilduma kalean da

Berastegiarraren lehen liburua da; izatearen inguruko poema sorta da eta bizitzaz, heriotzaz eta maitasunaz ari da

### I. Terradillos Berastegi

Ione Gorostazu berastegiarraren *Des egiten* (Elkar) poema bilduma kalean da dagoeneko. Karumele Igartua beka irabazi zuen Gorostazuk, eta horren ondotik animatu zen idatzita zituen lanen aukeraketa egin ez bilduma osatzera. *Deseginez egiten* ideari jarraitzen dio izenburuak. Izate-

ren inguruko poema sorta da, bizitzaz, heriotzaz eta maitasunaz ari da.

Atzo eginiko liburuauren aurkezpenean, Xabier Mendiguren editoreak azaldu zuen «kontuan hartzeko ahots berri bat» dela literaturaren munduan berastegiarrak. «Emozioz idazten du, eta emozio horri forma ematen asmatzen du», adierazi zuen.

Gorostazuk, bestalde, «eten-gabe» zentzu baten bila ari dela esan zuen. «Heriotzarekiko obsesio modukoa dut; izan ere, ezikusiarena egiten diogula iruditzen zait, baina, hor dago, eta agian horrek ematen dio gure bizitzari zentzua».

## → Laburrak

### Sendi Ekintzak taberna martxan jarri nahi du

**IBARRA** | Ibarrrako Sendi Ekintza tabernaren esleipenerako deialdi publikoa egin dute. Sendi Ekintza elkarteak taberna berriro ere martxan jarri nahi du, eta horretarako deialdi publiko eta zabala burutu du. Interesa dutenek, lokala ikusteko atea zabalik izango dituzte gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara. Zalantzaren bat duenak edota harremanetan jartzeko [sendiekintza@hotmail.com](mailto:sendiekintza@hotmail.com) helbidera idatzi ahal-ko du.

### Ibarrako Udalak Otaño aizkolaria zoriandu du

**IBARRA** | Ibarrrako Udalak Unai Otaño ibartar aizkolaria zoriandu du, iragan igandean Azpeitian, Joseba Otaegi zizurkildarrekina batera jokatuako urrezko mailako txapelketako finala irabazi zuelako. «Zorionak biei eta lanean jarrai dezazuela, horrelako garaipen garrantzitsuak lortzeko», adierazi du udalak.



**Tolosan etxe adosatua salgai:** eguzkitsuak, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekuak.

Interesatuak, deitu  
678 267657  
telefono zenbakira.

## Greba komiteak martxoaren 29a girotzen hasi dira

Tolosan Gazte Komiteak deituta batzarra egingo dute 18:30ean; Anoetan kartelak jarriko dituzte

### A. Imaz

Martxoaren 29ko greba orokorren inguruan, greba komiteak sortzen ari dira eskualdeko hainbat herritan. Anoetan, ezker abertzalearen eskutik, hainbat herritar elkartu dira hilaren 29ko deialdia bultzatzeko asmoz.

Gaur, hilak 8, Anoetako udal-txe aurrean elkartzeko deia zabaldu dute, 19:30ean. Bertatik abiatuta, herrian zehar kartelak jarriko dituzte. Hilaren 14ean,

asteazkenean, LABeko kideen hitzaldia antolatuko dute, udaletxean 19:30ean.

Anoetako langile, langabetu, gazte eta pentsiodunei dei egin diete greba komitean eta hitzaldian parte hartzeko eskatuz.

### Gazteen komitea, Tolosan

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT-LKN, EHNE eta Hiru sindikatuek deitutako grebarekin bat egin dute hainbat gizarte eragilek, baita eskualdekoek ere. Tolosako gazteek euren ekarpena egin nahi dute alor honetan, eta Gazte Komitea sortu dute. Martxoak 29a girotzeko, bilera irekia eta zabaldu egingo dute gaur Tolosako kultur etxean, 18:30ean. Gazte nahiz heldu, bilerara deitu dituzte.

## Parotiditisaren birusa edo hazizurria indartsu iritsi da eskualdeetara

Leitza eta Ibarako osasun zentroetan txertoa hartzearen aldeko gomendioa egin dute

### Asier Imaz

Hazizurria edo parotiditisaren birusa indartsu iritsi da eskualdeera, eta batik bat Leitza. Hala eta guztiz ere, Leitza osasun zentrotik azaldu dutenez, erien kopurua beharera doa, handiena duela hiru edo bi aste izan baitzen. Hala eta guztiz ere, kasu berriak noizean behin agertzen direla diote: «Aurten normalean baino asteko kasu gehiago izan dira; oso nabarmena izan da».

Ibarako osasun zentroan ere artatu behar izan dituzte hazizurria zuten gaixoak. Gomendioa bi osasun zentroetan argia da: «Txertoaren kanpainak egiten direnean, hartzea gomendatzen dugu».

Hazizurri kasu gehienak 15 urtetik gorakoengan gertatu dira. Leitza, adibidez, 20-40 urte bitarteko adin eremua aipatu dute osasun zentroetik: «Txertoak behin betirako izaten direla esan ohi zen, baina hartuta zeudenek ere harrapatu dute. Behar adinako efektua ez dute egin, beraz, txerto horiek».

Hazizurriaren eragilea birus bat da, eta gaixoak kanporatzen dituen listu-tanten bidez transmititzen da. Etxean kasuren bat izanez gero, eskuak garbitzea, dis-

tantzia pixka bat mantentzea eta harreman intimoak ekiditea gomendatzen dute Leitza osasun zentroetik. Gaixoak, aldiz, etxean zazpi egunez egon beharko luke.

Normalean hazizurria duenak gripearen antzeko sintomak izaten ditu: ondoeza, sukarra, jateko gogo gutxi izatea, hozka egiterakoan mina eta abar. Izan ere, mahailez gainean eta belarrien aurrean dauden parotidak handitzen dira hazizurriarekin. Aurte egiteko, botikak hartu behar dira, baina sintomak kontrolatzeko, ez baitago tratamendu espezifikorik. Normalean, sendatu eta desagertu egiten da gaitza, baina komplikazioak ere sor daitezke beste organoetan: barrabiletan, obulutegietan, edo pankreatitisa eta meningitisa.

## Ustez bikotekidea jotzeagatik, atxilotua

Villabonako emakume baten salaketari erantzunez, Ertzaintzak 42 urteko gizonetako atxilotu du Hernanin

### Erredakzioa Amasa-Villabona

Ertzaintzak gizonetako bat atxilotu du, ustez bere bikotekidea jotzeagatik. Villabonako emakumezko batek Ertzaintzari deitu

zion herenegun, goizaldean, la-guntza behar zuela esanez. Ertzaintza haren etxera joan zen, eta gizonetako mehatxatu egin zuela salatu zuen emakume billa-bonatarrek. Salaketa honen aurrean, ertzainek 42 urteko gizonetako atxilotu zuten Hernanin, ordu gutxira.

Ertzaintzak ustezko erasotua ospitalera eraman behar izan zuten, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo sailetik azaldutakoaren arabera.

### Irudia Amasa-Villabona



## SOMPORTEN ESKIATZEN

Amasa-Villabonako Aizkardi Mendi Taldeak eski irteera antolatuko du otsailaren azken asteburuan. Haur ugari joan ziren irteera horretara, eta iraupen eskiaz gozatzeko aukera bikaina izan zuten Aragoiko Pirinioetako Somporteko elur pistetan. HITZA

Hemendik aurrera  
[euskalherriko plaza.com-en](http://euskalherriko plaza.com-en)



## JAKI saskiak

			
<b>“Sarrerak”</b> 23€	<b>Menua</b> 17€	<b>“Azken burukoak”</b> 17€	<b>“Gosariak”</b> 10€
Pedro Luis zainzuriak (480 ml-ko potoa) Urdaibai antxoa (210 g-ko potoa) Arbizu pateaa (100 g) Mahala urdaiazpikoa (200 g)	Ostargi babarrun zuria (kiloko 2 poto) Delicass ahate konfita (2 izer)	Urbasa Aitona gazta (1/2 kg) Mahala sagar dultzea (200 g) Gartziategi sagardoa (33 cl-ko 2 botila)	Labakoa ogi tostafua (poltza txikia) Pedro Luis mertxika marmelada (275 ml-ko potoa) Alfar olioia (25 cl-ko botila)

# Ioseba Rojo iraupen eskiko sprint eta distantzia luzean bigarren izan da Espainiakoan

Ioseba eta Imanol Rojo anaia tolosarrek emaitza ezin hobek lortu dituzte hainbat eski probetan

**Enertiz Maiz** Tolosa

Ioseba Rojo tolosarrak iraupen eskiko Espainiako txapelketako sprint eta distantzia luzeko probetan bigarren postuak eskuratu ditu. Otsaileko azken asteburuan, Benasquen jokatu ziren, eta bi probetan Ioseba Rojok oso emaitza onak lortu zituen. Bere anaia Imanol Rojo, berriz, laugarren postuan sailkatu zen.

Biak Espainiako selekziozko partaideak dira, baina aurten diru kontuak larri daudela eta, Espainiako federazioak Europako probetan parte hartzeko aukera gutxi eskaini dizkie.

Hala ere, otsailaren 12an, beraien poltsikotik ordainduz, Frantziako Transjurasiene proba luzea korritu zuten, baldintza oso gogorretan. 76 kilometrotako proba izugarritzko hotzarekin egin behar izan zuten. Imanol Rojo, 22. postuan sailkatu zen, eta Ioseba Rojok, berriz, 48. postua lortu zuen.

Otsailaren 18an, FIS mailako proba izan zen Puigcerdan eta Ioseba Rojo izan zen irabazlea eta bigarren postua Imanol anaia-arentzat izan zen. Bidaia luzea egin ostean, Imanol Rojo, igandean, Somporten azaldu zen Peña Guara lasterketan parte hartzeko. Garaipena eskuratu eta etxeratu zen.



Emaitza ezin hobek lortzen ari dira Rojo anaiak. HITZA

Joan den asteburuan, hilaren 4ean, Sonporten, Trace Aspoise proba jokatu zen. 29 kilometro egin behar izan zituzten, eta sailkapen bera errepikatu zuten: Ioseba irabazlea izan zen eta Imanol bigarrena. Baptiste Cazaux eskiatzaile frantziar iaioari aurrea hartu zioten.

Inguruan jokatu diren probetan beraien eskiatzeko modu dotoreaz gozatzeko aukera izan da.

## Beterano eta gazteak

Beteranoen mailan, Lourdes Irauztak lortutako garaipenak, eta Txiki Plazas eta Peio Gorostegik lehiarako erakusten duten grina nabarmendu nahi dituzte Alpino Uzturre elkartetik.

Gaztetxoetan, berriz, Mikel Plazas eskola arteko Gipuzkoako Txapelketa irabazi berri du. Alpino Uzturre elkartetik «zorianak» eman nahi izan dizkie kirolari guztiei.

## Irudia ◊ Tolosa



## IKASTOLAKOAK KORRIKA

Gaur Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte Laskorain ikastolan. Azken urteetan, Laskorain ikastolako ikasle, irakasle eta ama kuadrila batek Donostian ospatzen den Lilatoian parte hartzen du. Igandean ere, horrelaxe egin zuten. Urteik urtera ikastolako lagun gehiagok parte hartzen du, eta guraso eta ikasle ugari joan ziren animatzera. HITZA

## Hamasei enpresek kalitate turistiko ziurtagiria jaso dute

‘Kalitate turistikoa’ eta ‘Informazio eta komunikazio teknologien erabilera ona’ dira ziurtagiriak

**E. Maiz**

Informazio eta komunikazio teknologien erabilera ona eta Kalitate Turistikoa onartzen duten ziurtagiriak jaso zituzten Tolosaldeko 16 enpresek, Arabar Errioxako Samaniegoko Baigorri upategian. Lehenik, Jardunbide Egoiak IKTen erabilera programa pilotuaren aurkezpena egin zen. 2011. urtean frogatu zen Tolosaldean eta Goierriin, eta 2012. urtean Euskadi osora zabalduko da. Ziurtagiri hau lortu duten lehenengoak izan dira, eta Tolosaldean, Bizi-biziki turismo aktiboko enpresa, Bidegoiango Iriarte Jauregia Hotela eta Olazal hotel jateketa eta eskualdeko Tolosaldea Tour turismo bulegoa izan dira ziurtagiria lortu dutenak.

Eskualdeko hamabi enpresek *Konpromisoa Kalitate Turistikoa* rekin ziurtagiria berritu dute laugarren urtez. Urtez-urte egindako hobekuntzen aitorza izan da: Amasako Iturri-goxo jateketa, Asteasuko Patxine jateketa, Alkizako Lete nekazalturismoa, Abaltzisketako Larraitz-gain jateketa, Ibarrako Eluska jateketa, Altzoko Arandia jateketa, Berrobiko Iriarte jateketa, Tolosaldeko Asteleña jateketa, Eguzkitza sagardotegia, Korteta nekazalturismoa eta Usabal sagardotegia, eta eskualdeko Tolosaldea Tour turismo bulegoa izan dira.

IKTen erabilera onen programa pilotuan parte hartu zutenek jarraitu egingo dute, eta kalitateko programan hirugarren talde bat ixten ari dira. Programan parte hartu nahi izanez gero, Tolosaldeko Garatzeneko Turismo arloarekin jarri behar da harremanetan, *garmendia@tolosaldea.net* helbide elektronikora idatziz edo 943 69 74 13 telefono zenbakira deituz.

## Oargi elkarteak antolatutako GPS ikastaroan izena emateko, gaur azken eguna

**E. Maiz** Tolosa

Oargi mendi elkarteak GPS ikastaroa antolatu du hilaren 12, 14, 16 eta 17rako. Hilaren 12, 14 eta 16an, 19:30etik 21:00etara izango da Oargi elkartearen. Larunbat goizean, hau da, hilaren 17an, 09:00etatik 13:00ak izango da saioa, eta kasu honetan, mendian ibiliko dira. Ikastaroa egiteak 55 euroko kostua izango du, eta ikastaroko behar den material guztia bertan sartzen da.

Ikastaroa aurrera ateratzeko gutxienez bost lagun behar dira eta gehienez hamar. Izena emateko, *info@oargi.org* helbide elektronikora idatziz behar da. Izena emateko azken eguna, gaur, hilak 8 izango da.

◊ [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Latinoamerikako merkatuen «aukerak» aztertuko dituzte

Lehiberrik antolatuta, ‘Mexikon, Kolonbian eta Brasilen aukerak eta erronkak enpresentzat’ jardunaldia egingo dute

**E. Maiz** Tolosa

Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Foroak, Lehiberrik, Mexiko, Brasil eta Kolonbiako merkatuek Tolosaldeko enpresa eta pymeei «eskaintzen dizkieten aukeren berri emateko» jardunaldi bat antolatu du. Hilaren 16ean, 10:30ean izango da, Apata industrigunean.

Parte hartzailea izatea nahi da, eta bertaratutakoek hizlariei galderak egiteko aukera izango dute. Bertan, David Fernandez, SPRI-

ko Nazioartekotzerako Sailaren zuzendaria; Itzel Olagüe, Mexikoko SPRIko zuzendaria; Sergio Torres, Brasilgo SPRIko zuzendaria eta M. Angeles Guerra, Kolonbiako SPRIko zuzendaria izango dira. Bestalde, Jose Luis Azkue, Lanik Ingenieroseko kudeatzaileak, enpresa Brasilen ezartzerokan izan duen esperientzia azalduko du, eta Inaki Orejak, Kimua Groupeko zuzendari komertzialak, Lehiberrik 2010 eta 2011 urteetan, Brasil eta Hego Koreara egindako misioetan izandako esperientzia kontatuko du.

Informazio gehiago eskatzeko edo izena emateko Tolosaldea Garatzeneko enpresa sailarekin kontaktatu behar da, 943 654 501 telefono zenbakian, edota mezuek elektronikoz *enpresa@tolosaldea.net* helbidean.



Samaniegoko Baigorri upategian jaso zituzten ziurtagiriak. HITZA

# Lau urteko prozesuaren ostean, Ibero berreskuratu du Leitzak

33 hektareako eremuaren eta bertako eraikinen jabe da herria 227.470 euro ordaindu ondoren

**Iñigo Terradillos** Leitza

Leitzak herriarenak ziren lurrak berreskuratu ahal izan ditu lau urte iraun dituen prozesuaren ostean. Leitzako Suteen Aurkako elkarteara izan da azken mende-an Iberoko lur saila eta bertako eraikinak, baina bi aldean arteko negoziazioari esker, Leitzako Udalak erosi du, eremu osoaren jabetza orain berea izanik.

Leitza Goizuetarekin batzen duen bidean dago Ibero. 33 hektareako eremuan Erdi Aroko dorrea, baserria, burdinola zaharra eta Urumea errekararen gaineko zubia daude. Eremuaren jabetza eskuratzeko 227.470,96 euro ordainduko ditu Udalak, eta %30eko diru laguntza izango du Nafarroako Gobernuaren partetik.

## Bost mendeko afera

Udala eta Suteen Aurkako elkar-tearen arteko negoziaketa prozesua aurreko legegaldian hasi bazen ere, mendeetako afera da Iberokoa. Antza, udaletxean aurkitutako dokumentuen arabera, 1536koak dira auziaren lehen erreferentziak. Une hartako jabeek Leitzako mendiko egurra eta ura baliatzen zuten armak egiteko burdinola martxan jartzeko. Hain zuzen ere, mendia gisa horretan erabiltzeko sortu zuten herritarren eta jabeen arteko liskarra.

Horrela, jabez aldatuz joan ziren Iberoko lurrak, 1892. urtean Leitzako Suteen Aurkako elkar-tearenak izatera pasa ziren arte. Baserritar ugari eta udala bera ziren elkar-tearen bazkide. Euren helburua istripu eta suteen aurre-



Iberoko lur sailako baserria eta dorrea, 80. hamarkadan. ALKE



Iberoko dorrearen egungo egoera. J.M. BARRIOLA

an elkarri babes eman eta laguntzea izaten zen.

Industrializazioak burdinolen gainbehera ekarri zuen, eta elkar-teak alokairuan jarri zuen baserria, maizterrek eremua zainduko zutenaren baldintzarekin.

Iragan hamarkadara arte maizterrak izan ditu baserriak, baina ordutik hutsik dago, eta pixkanaka hondatuz joan da, egun duen egoera «kaskarrera» iritsi den arte. Hori ikusita, Leitzako Udalak garai batean herriarena zena be-

rreskuratzeko prozesuari ekin zion.

## Ondare historikoa

Oier Eizmendi Leitzako alkatearen esanetan azken lau urteetan prozesu honetan buru belarri egoteko arrazoiak hainbat izan dira: «Batetik, Leitzarenak izan diren lurrak berreskuratu nahi genituen; bestetik, dorrea eta baserria oso egoera txarrean zeudela ikusten genuen, erortzeko zorian, eta lehenbailehen zerbait egiteko beharra zegoen; azkenik, dorrea Erdi Arokoa dela kontuan hartuta, balore handikoa da, eta hori guztia zaharberritu eta turistikoki lantzea interesgarri ikusten zuten Udalak».

Dagoeneko Nafarroako Gobernuarekin hasi dira hitz egiten, Iberoko dorreak ondare izendapena jaso dezan. Behin izendapena jasota, errazagoa litzateke zaharberritze prozesua. Bitartean, eremuaren etorkizunaz hausnarke-ta egingo dute, nolako Ibero nahi duten erabakitzeke.

## → Laburrak

### 'Drive' filma izango da ikusgai bihar eta igandean

**LEITZA** › Asteburuan Drive filma ikusteko aukera izanen da Leitzako zinean. Nicolas Winding Refn zuzendariaren pelikula bihar 22:30ean, eta igandean 19:30ean emango dute, eta 6 euro ordaindu beharko da sarrerarengatik. Datorren asteburuan, hau da, hilaren 16an eta 18an emango dute denboraldi honetako azken filma, eta urriari itzulki dira zinemara pelikulak.

### Euskarari buruzko egoera aztertzeke bilera, gaur

**LEITZA** › Arano, Areso, Goizuetara eta Leitzako euskara zerbitzuak euskararen inguruko gogoeta bultzatu nahi du. Leitzan izango du abiapuntua, gaur, 18:00etan hasita udaletxeko batzar aretoan egingo duten bilerarekin. Aurrez banatu duten galdetegien inguruan hausnarketa egin eta gero, azken urteetan euskara sustatzeko egin den lanaren inguruko balantzea egingo dute. Herritar oro gonbidatzen dute bilera parte hartzera.

### Atekarock jaialdirako sarrerak salgai daude

**LEITZA** › Martxoaren 24an Atekarock musika jaialdiaren bigarren edizioa izango da Leitzako kirolegian. Akatu, Kaotiko, Governors, Ze Esatek!, Tximeleta edota Dj Bull izango dira, eta Gaztetxeko Hijo Hop gauean, 121 Krew, Goienetxe anaiak eta Raperos de Emaus taldeak ariko dira. Sarrerak 16 euroan egunean bertan, edota aurrez 14 euroan eskura daitezke, Leitzako Torrean, Villabonako Maxolan, Tolosako Denaken, edota kontu korronte bidez, [atekarock.blogspot.com](http://atekarock.blogspot.com) helbidean. Autobusa ere jarriko dute Tolosaldeketik, eta joan-etorria 6 euro kostako da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta/Leizaola:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko  
eta Leizalaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Leitza.** Euskararen inguruko hausnarketa egiteko bilera deitu du euskara zerbitzuak, 18:00etan, udaletxean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.
- **Tolosa.** Galtzaundi irakurle taldearen saioan, Lander Garro idazlea izango da. *Kontrarioa* liburuarekin, 19:30ean, kultur etxean.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Zine forumaren barruan, *Declaración de guerra*, 19:15ean eta 21:45ean, Leidoarren eta jatorrizko hizkuntzan.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak



### Urte askoan!

**Leire (Tolosa).** Zorionak eta muxu asko, batez ere zure anaia Eñauten partetik

## Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



## EDOZEIN PERTSONAIA GORPUZTEKO AUKERA

Mozorroak dira Inauterietako Argazki Lehiaketara aurkeztutako irudietatik gaur argitaratutako lauak. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera, Orkatz Goenaga, Miren Agirrezabala, Aitziber Errazkin eta Bidatz Goenaga dira egleak. Gogoan izan irudi guztiak

[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean ikusi ahal direla, eta martxoaren 16an emango dela ezagutzera zein den irabazlea. Argazkiak [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera bidali behar dira, eta bihar da azken eguna horretarako. HITZA



**SAN SEBASTIAN  
GIPUZKOIA BASKET**



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta du**

Martxoak 11, igandea  
12:30ean

Donostiako Irunbe

**LAGUN ARO GBC  
CAJA LABORAL  
BASKONIA**



sarrerak

